Enfasizko adierazkera baten azterketa XIX mendeko itzulpen batean

J. M. Zabaleta
Itzultzaile Eskolako Irakaslea

J. M. Arrizabalaga
Itzultzailea

Ez icaratu, iracurle maitea, etzayozu ere ipiñi berealatic beusco illuna liburucho honi. Ez bertan berá utzi ere escuetatic, izututa, liburucho hau, alabaña, ceñ eta eciñ gueyagoraño iracequi eta goritua dagoen. Zuc eta nic, alcar ongui adituaz adisquidetasun osoan beguietaratuco ditugun eguia oyec eztizquitzute erreco béátzac, ceren escuen artan darabilgun sua, suaren ichura baño eztan (**Liberalen dotriña pecatu da**. Sarrerako hitzak).

Ez izutu, iracurle ona, eta ez becozcotu bereala asieratic liburuts onenganaco. Ez ere icaraz escutic asca papera; bada, naiz-ta gorritutzeraño kiskaldu ta goritubac egon, biyoc bertan etsecoi ta aiskire-izketan erabilico ditugun jardungariyac, etzaizkitzu, ez, berakin biatzac erreco; bada emen esaten degun suba, itzaldaketa da, ta ez besteric (**Liberalkeria pecatuba da**. Sarrerako hitzak).

Sarrera

Askotan gertatzen zaigu itzultzaileoi hitz baten, edo gehiagotan hala ere, modismo baten esanahia eta erabilera zehaztu nahi dugunean, itzulpenean zehatz erabili behar bait dugu gero, nekeak izatea lan ho-

rretan. Normalean, gainera, behar baino gutxixeagotan egiten ez ote dugun, nago, lan hori. Ez bakarrik, ordea, hitz bat edo besteren esanahia eta erabilera zehaztu gabean geuretzako lauso geratuko zaizkigulako bakarrik, beste bi modutako arrazoirengatik ere bai baizik.

Lehenik eta behin, geurontzat zehaztu gabea daukaguna itzuri egingo dugu maizenik, eta itzuri ahala geure idazkera pobretu, txairo, urri eta eskas izatean geratu, aberastu ez, malgutu ez, adierazkortu ez. Langintza horretarako deia inork badu, ordea, idazleak eta itzultzaileak du, adierazi beharrak xehe eta mehe adierazi behar dituenak.

Bestetik, eta garrantzirik handieneko arrazoia hauxe dateke apika, hitzen eta modismoen esanahia eta erabilera aztertu, finkatu eta beren neurri doietara ekartzeko ahalegin honek, neurri batean edo bestean teorizatzera behartzen du itzultzailea, une horretan azterlari bihurtua. Eta ondorioztapenak hain urriak diren hizkuntz erabileraren alor honetan, itzultzaileak behar duen hizkuntz konparaketakoan, beti, edo askotan, sortuko zaio ideia berriren bat, beti suertatuko zaio ordura arteko teorizazioaren muga zertxobait hedatzea, zabaltzea, berritzea.

Artikulu honetan asmo horretako saio bat egin nahi izan dugu, aztergai izan dadin esakera jakin bat harturik. Horretarako, lehendabizi, testu bat hautatu dugu: **Liberalen dotriña pecatu da**, testu horretan guk hautatu dugun modismo bat nola erabiltzen den begiratzeko. Itzulpena denez, jatorrizko testuarekin eta hartatik egindako beste zenbait itzulpenekin konparatu ahal izateko sailkatu ditugu testuak. Zazpi esaldi aukeratu ditugu, liburuaren erdia pasatxoan aukeratu dugun modismoa azaltzen den guztiak, eta horiei buruz zenbait gogoeta eta bilaketa burutu dugu. Esaldiok, batera, artikuluaren ondoren jarri ditugu, konparagarri izan daitezen.

Autorea eta obra

Itzultzaileak, bere hizkuntzaren finkotasun horren bila, maisuak hautatzen ditu. Maisu idazleak, maisu itzultzaileak, maisu hiztunak ere. Hizkuntzaren harrobiaren hautapena. Baliapideen iragazia, ikasketak eta lanak, premiak irauten dion arteraino, berak egingo bait du, bere erizpideen eta inguruaren kontrastasunak eragiten dioten bezala.

Euskaraz zerbait aurreratu nahi duenak hizkuntz harrobi horretan, liburutegiko apaletan, eduki behar lukeen liburua da **Liberalen dotrina pecatu da**, Felix Sardá y Salvany, Sabino Arana Goiriren mentore erlijiozkoa izango zenak egunkarietan idatzitako artikuluen bilduma liburuan bildu eta handik itzulirik 1.887an Bartzelonako "La

Hormiga de Oro" inprimategian argitaratua. Honela dio lehen orrialdeak: **"Liberalen dotriña pecatu da.** Galda bician dauden aucibideác erriaren errevista deritzan paperaren zucendari D. Felix Sarda eta Salvani, apaizác arguitara emanac. Dei bedi Racionalisten, Irabia zaleen, edo naiz Liberalen dotriña; ezur eta mami, oso eta bici, naiz ezcutuan eta naiz aguirian, fede eguiazcoaren ucamena izango da beti".

Liburu horrek berberak edizio monumental bat ezagutu zuen, 1.891 urtean inprimategi berberean argitaratua. **"El liberalismo es pecado.** Cuestiones candentes, por D. Félix Sardá y Salvany, presbítero, director de la *Revista popular*. Edición políglota monumental". Zortzi hizkuntzatan agertzen da bertan: gaztelania, kataluniera, euskara, portugesa, latina, frantsesa, italiera eta alemana (Lan hau burutzeko, ordea, aleman eta latinezko testuak ez ditugu kopiatu, artikuluaren bukaeran ematen dugun corpuserako, ustez irakurlegoaren gehiengoarentzat ezin iritsiak direlako eta konparazailenak ere beraiek direlako). Euskarazko itzulpenaren titulua, edizio honetan, **Liberalkeria pecatuba da** da. Euskarazko testua, ordea, ez da 1.887an euskaraz soilik eta inprimategi bereberean argitara eman zena, oso bestelakoa baizik, geroxeagoko adibideetan aise antzemango zaion bezala. Hemendik aurrerako aipamenetarako komenigarria da tituluen diferentzia kontutan hartzea.

Itzulpen hauen bi autoreez apenas askorik esan litekeen. Itzulpenek ez daramate izenik. Eta Zegamako D. J. M. Etxeberria izeneko kanonigo batetik hasi eta Miguel Antonio Antia eta Gregorio Arruerainokoak aipatu izan dira itzultzaile bezala. Bi itzulpen hauek gipuzkerara eginak dira. Juan San Martin jaunak behin baino gehiagotan esan digu bere iritzirako, lehenengo argitaratu zen itzulpena, euskaraz bakarrik argitaratu zena alegia, Gregorio Arrue jaunak itzulia dela, irizpide horri eusteko batez ere idazkeraren zenbait ezaugarritan oin hartzen duelarik, "h" izkiaren erabilerarenean batez ere. Adibideetarako jaso ditugun esaldietan beraietan ikusten da izan ere, naiz eta gipuzkeraz idatzia izan, eta idatzi zen garaikoa, "hilgarri" idazten duela, eta ez "ilgarri", legokiokeen bezala.

Bigarren itzulpenaren, beste zazpi hizkuntzekin batera argitaratu zenaren, egilearen aztarrenik ez dugu bilatu inon.

Liburu honen beraren beste itzulpen bat ere bada, joan den mendearen bukaeran edo XX. honen hasieran bizkaierara egina, eta J. M. Zabaletak eta A. Mendigurenek Zarauzko frantziskotarren komentuan beste paper askoren artean aurkitua. Argitaratu gabea ordea, esku izkribuan, eta ezin izan dugu begiratu behar den moduan.

Aztergaia

Liberalen dotriña pecatu da irakurriz, eta gaztelaniazko testuarekin parekatuz, bertan behin eta berriro aurkitzen diren hizkuntz baliapide askok dute, sintaxiaren alorrean batez ere, hizketan entzunaren eta batek eskura ohiki darabilen literaturan ez irakurriaren halako oihartzun moduko bat. Horien artean —askoren artean— bat bereziki deigarria gertatzen da. Are deigarriagoa, hala ere, zeren lehen irakurrian ez bait da bat ohartzen, ezta euskal eta gaztelaniazko testuak bat banaka eta beren gisan irakurririk ere, bi testuak zehatz, hitzez hitz, esaldiz esaldi konparatzean bakarrik ohartzen delako baizik, esan nahi bait da euskarazko testuak bere korrizio natural bat duela, berezko labaintasuna, gaztelaniazkoak duen bezalaxe, eta hala ere zenbait elementu, zenbait hitz segmentu edo andana, euskarazko testuan badirenak, gaztelaniazkoan ez dira. **Hala ere** modu bat da hain zuzen, esaten ari garen elementu horietako bat, euskarazko testuan ageri dena, eta gaztelaniazkoan parekorik ez duena.

Hasiera hasieran, sarreran ageri da, lehenengoz: "Ez, beintzat; bada, eguia bada, Jaungoicoaren eguia dan becela, gure Erligio santua, eguia dira, eta eguia garratza *alere*, bere etsaiyac; eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia *alere*, oyen jatzar eta erasóac". Gaztelaniazko testuan "No por cierto, que si es verdad, como divina verdad es el Catolicismo, verdad son y dolorosa verdad sus enemigos, verdad son y sangrienta verdad sus combates, verdad han de ser, y no pura fantasía de teatro sus ofensivas y defensivas" dioen lekuan. Egia behar den bezala esateko, **hala ere** hori baino gehixeago ere badago zer komentaturik zati honen itzulpenean.

Gertakari honek aztergai bat baino gehiago ematen digu, zeren bistan dago, alde batetik, **hala ere** horren esanahia ez dela, kasu horretan behintzat, adbertsatibo soil bat, oso bestela baizik, eta bestetik euskarazko testuan agertu izana eta gaztelaniazkoan ez, itzulpen kritikak baloratu behar duen auzia da, eta baloratu ondoren teoriazko ondorioak atera, hala behar balitz.

Definizioa

Lehentxeago jarri dugun adibidea, eta artikulu honen amaieran proposatzen ditugun gainerantzekoak ikusirik normalean, adbertsatiboen artean sailkaturik aurkitzen den forma honek (**hala ere**) adbertsatibo zentzurik ez duela da ohartzen den lehenengo gauza. Adbertsatibo ho-

rren, eta beharbada adbertsatibo adierazpen mota gehiagoren (baina, ordea) beste balio hau zehazteko, hiztegi eta gramatiketara begiratuz bilketa hau egin daiteke:

a. R. M. Azkueren hiztegian:
Baiña (AN-b, B, G), baiñan (G), bainan (L): 1. Pero (delante de una palabra). Eztakigu norena dan, baiña jan zazu. No sabemos de quién es, pero cómalo. Pospuesto es "aunque": Jan zazu, eztakigu norena dan baiña. Comedlo, aunque no sabemos de quién es.
Ordea: 2. (AN-b-lez, BN,..., Gc, Lc, R, L) mas, pero, en cambio.
Ordean (BN, L, S): mas, empero.

b. P. Lhanderen hiztegian:
Hala ere, halere: 1. même ainsi; 2. cependant, toutefois, néanmoins; 3. bien plus, qui plus est, certes; 4. hereusement, par bonneur.

c. I. López—Mendizabalenean:
Ala ere: Así y todo, así también. / menos mal!
Baña: Pero, sin embargo.
Ordea: Pero, el caso es que, mas.

d. P. Mujikaren hiztegian:
Ordea: 1. G: pero, empero, en cambio: zu etxean..., aita ordea kanpoan; urrea dala diote, urretxarra ordea = sino que (sólo que) es mal oro.
Baina: pero, mas, empero, en cambio. Bainan ordea: con todo, aún así, sin embargo.
Baino: G 1. pero, mas, empero, en cambio; neronek diot baino AN = aunque me esté mal el decirlo. 2. que: zu baino (baño) gazteagoa naiz = soy más joven que tú. 3. sino: ez naiz pasaitarra, irundarra baino (baizik) = no soy de Pasajes, sino de Irún.
Ala ere = sin embargo.
Alere (c) 1. así y todo, aún así, sin embargo, con todo, no obstante; (c) empero, pero, mas. 2. por cierto: etxe ederra da eta ez alere txikia = es una casa hermosa y por cierto no pequeña.

Gainerako hiztegiak, gaur gehien erabiltzen direnak behintzat aipatu horien zordun dira, eta begiratuarren, aipatu beharrik ez dago.

Gramatikei dagokienez, berriz, hona haietan bilduaren laburpen adierazgarri bat:

a. Fr. Luis Villasanteren **Sintaxis de la oración compuesta** gramatikazko liburuan, "Coordinación adversativa" deritzaion atalean, Axularrengan **baina** hitzak hartzen dituen bi erabilerak aipatzen dira ("adversativo restrictivo" eta "adversativo exclusivo"). "Otro adversativo muy usual es **ordea**" gehitzen du.
b. Txillardegiren **Euskal Gramatikan** adbertsatiboei buruz dagoen informazio nagusia hau da: **baina** hitzak gaztelaniazko **pero** hitzak bezalaxe jokatzen duela, eta esaldiaren aurretik nahiz atzetik jarri litekeela.
c. P. Goenagaren **Gramatika bideetan** ez da gehiagorik esaten.
d. A. Arejitaren **Euskal Joskerak** 56. orrialdean Txillardegiren gramatikan zekarren gauza beretsua dakar, eta 182.an **baina** ia beti konjuntzio adbertsatiboa izan arren, esaldiak koordinatuz, kasu batzutan "alandaguztizko" esaldietako ezaugarri ere izan daitekeela esaten du ("Ondarru herri polita da, ez da aundi aundia baiña", alandaguztizkoa).
e. R. M. Azkueren **Morfologia Vasca**, S. Altuberen **Erderismos** eta F. Lafitteren **Grammaire basque** ere begiratu ditugu. Gramatiken zerrenda gehiago luzatuagatik ere, ordea, nekez aterako da bat definizio horietatik. Salbu eta, agian, Fr. Diego de Alzoren **Estudio sobre el euskera hablado** begiratzen bada. Honela dio berorren 213. orrialdean:
ALA-ERE = sin embargo, menos mal, por cierto,por fin, gracias a Dios. c) ALA-ERE con significado de *por cierto*, se pospone a los adjetivos cualificativos y cuantitativos: "Beia saldu zidazun, ederra ala ere" = "me vendió Vd. una vaca, hermosa por cierto" (Ondarribi). "Organistik ez dago? Ondo gutxi ala ere" = "No hay organista? Bien pocos por cierto" (G).

Ikusten denez, Plazido Mujikak eta Diego Alzokoak bakarrik ematen dute argibidea, jarria dugun adibidea behar bezala ulertzeko. Nahiz eta, egia esan, horrekin adierazpen horretarako dagoen egitura osoa agortzen ez duten. Badira, izan ere, adierazkizun berbererako (enfasi adierazpenerako) hizketan, euskara mintzatu arruntean, beste zenbait egitura, adibideetan agertzen direnen guztiz parekoak ia, gramatika eta hiztegietan jaso gabe daudenak. Egitura honek hizketan dituen aldagarri guztiak ez daude bildurik eta esplikaturik.

Jarri ditugun adibideetatik, eta P. Mujika eta Diego Alzokoak dakartzatenetatik ageri denez, baliapide enfatiko, enfasi adierazle bezala definitu behar da aipatzen ari garen baliapide hau. Gaztelaniaz, beraz, **y ... por cierto, y... ciertamente** behar luke itzulpen arruntenak.

Irizpide horrekin alderantziazko bidea egin dugu, **cierto** eta **ciertamente** hitzen itzulpenerako euskaraz zein baliokide ematen zuten begiratuz. Begiratu ditugun hiztegi guztietatik, **Diccionario Auñamendi Español — Vasco** hiztegiaren **tomo cast—clar** liburukian aurkitu dugu bilatzen ari garen esanahiaren aztarren bat: "Sí, por cierto!: etedan ba!; bai, baldin bere!; bai, zelan bere batedea! (B); bai egitan!; bai, noski! (G, AN); bai, ainbat!; bai, alegia!; bai, orixe!; ondo, ala ere! (G): baieiki! (L); bai, segurki! (S).

Egitura

Osagaiak, adibide ia guztietatik atera daitekeenez, esateko tonueraz eta beste baliapide extratestual batzuez gainera, [eta + izenlaguna + hala ere] dira (Adjetibo kualitatibo edo kuantitaboa dio Diego Alzokoak). Egitura hori era askotara da hedagarria. Hona geroztik hizketan obserbatu ahal izan ditugun adibide eta egitura batzuk, beti ere izenlagun baten enfasi adierazle direnean:

[eta + izenlaguna + hala ere]
[Ø + izenlaguna + hala ere]
[Ø + izenlaguna + ordea]
[Ø + izenlaguna + baina]

Izenlagunari dagokionez, adjetiboaz gainera beste izenlagun egitura guztietakoak izan litezke. Hona zenbait adibide, lehen jasotakoei jarraituz eta hedatuz:

1.— Beia saldu zidazun, eta ederra alere.
2.— Beia saldu zidazun, ederra alere.
3.— Beia saldu zidazun, ederra ordea.
4.— Beia saldu zidazun, ederra baina.
5.— *Beia saldu zidazun, eta ederra ordea.
6.— *Beia saldu zidazun, eta ederra baina.

Hirugarren esaldia ez da ohizkoena, eta "ordea" gehituz eraikitzen diren esaldiak ez dira beti onargarriak izaten. Badirudi miresmen eta harrimen handienezko esaldietan izaten direla honelako esakerak onargarrien, isilune esanguratsu baten ondoren eta tonuera oso adierazkor batez laguntzen direnean ("Sekulako sarraskia egin dute. Bildurgarria ordea, e!").

Izenlagunaren egiturari dagokionez, era askotara dira hedagarriak, eta ez dute derrigor zertan beti adjetibo soil izanik. Funtzio adjetibala betetzen duen edozein egituran txerta liteke enfasi adierazle hau. Hona adibide bat, eta aski, zenbateraino den hedagarri erakus lezakeena:

7.— Filme ondo aspergarria ikusi dugu atzo, horrelakotara behin joan eta "hemendik aurrera ez naute horrelako beste batean harrapatuko!" esateko modukoa baina, e, ez pentsatu!

Horrelako esaldi bat, edonork entzunda, dudarik ez litzateke, egia izatera, onargarria egingo litzaikeela guztiz.

Liberalen dotriña pecatu da liburutik atera ditugun abibideetara itzultzen bagara, ordea, aipatu dugun egitura hori gramatika eta hiztegiek esaten dutena baino zabalagoa dela ikus genezake. Kasu batzuetan izan ere, bete egiten bait da orain arte esandakoa, baina bestetan ez:

8.— ... eguia dira, eta eguia garratza alere, bere etsaiyac...

9.— ... eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia alere, oyen jatzar eta erasóac.

10.— Eta ona emen liberalen dotriña eztirudielaric, eguiaz eta benaz ala dana, eta cimarroi galgarriena alere, alacoaren antzic eztuelacoa.

11.— Nic, dotriñ eguiazcoari narraicanác becela, au pecatu dala topatzen det; eta au fede chit onaz eguiteac, edo beste aringarriren batec aitzaquiatzen ezpazaitu, pecatu eriozko edo mortala alere...

12.— Contu eguizu, bada, nic, pecataria banaiz ere, Jaungoicoaren mesedez, cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere ... esaten dedala...

13.— Patu gaiztoco oyec liberalen gaiztaqueri gucietan culpagarri, eta lenengo culpagarri alere, dira...

14.— Badaude, bada, paper liberalac ececic, liburu liberal edo liberalen dotriñan cutsutzen diranac ere, eta ugari alere...

15.—Ortic ondoretzen da, bada, urcoa maite izan litequeala, eta berari ona opa lizayoqueala (eta asko alere) berari gogoco etzayona eguiñaz...

16.—Guc jotzen ditugu liberálac, eciñ uca liteque, eta chit maiz alere...

8.etik 14.era bitarteko adibide guztietan betetzen da goian esandakoa, eta gainera "da", "dira", "daude" aditzen predikatiboak diren izenlaguntzaileekin gertatzen dira beti.

15. adibidea zalantzagarriagoa da, interpretatzen zailagoa. Zeren izan bait liteke "eta (on) asko alere (opa litekeala)", Diego Alzokoak esaten duen bezala "adjetivo cuantificativo" batekin doala; ala izan liteke "eta asko (biziki, arront, gogotik) alere (opa litekeala)", eta kasu honetan aditz laguna izan "asko", 16. adibidean garbiago azaltzen den bezala.

16. adibidean azaltzen den "chit maiz alere" kasuan dudarik ez dago, aditz lagun batekin doala. Beraz, aditzlagunetara ere hedatu beharra dago Diego Alzokoak ematen duen adierazpena.

Gauza bera esan behar da **Auñamendi** hiztegiak dakarren adibidez:

17.— Sí por cierto! = Ondo ala ere!

Horrela bada, beste lau egitura gehitu beharko litzaieke lehen ezarri ditugunei:

[eta + aditzlaguna + hala ere]
[Ø + aditzlaguna + hala ere]
[Ø + aditzlaguna + ordea]
[Ø + aditzlaguna + baina]

Gramatikari dagokiona laburtuz eta gramatikazko ezaugarririk berezienak azaleratuz, beraz, esan liteke *gehienetan* (zortzi kasuetatik bostetan), adjetibo baten lagungarri doala aipatzen ari garen segmentua: "egia *garratza* alere", "cimarroi *galgarriena* alere", "pecatu *eriozco* edo *mortala* alere", "cristau *zarretacoa* alere, *lenengo culpagarri* alere".

Nahiz eta adjetiboaren esanahiak ez baldintzatu egitura, kontutan hartzekoa litzateke hala eta guztiz ere esanahi hori oso nabarmena dela beti. Alde horretatik, ikuspuntu semantikotik alegia, adjetibo hauek badute zerikusia bai agertzen diren zenbatzaileekin (asko, ugari), baita

aditzlagun edo adberbioekin ere (txit, maiz). Ezaguna da gainera euskaraz adjetibo eta adberbioen artean dagoen kidetasuna.

Gehienetan, ez beti (sei kasutan), substantiboa ageri da egituraren baitan: [eta + substantiboa + adjetiboa + hala ere]: "egia dira, eta egia garratza alere"; "cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere". Kasu guzti hauetan balio enfatiko oso markatua ikusten da: batetik erabiltzen den adjetiboaren edo izenlagunaren esanahiagatik beragatik; bestetik, substantiboaren errepikazioagatik; esan gabe entonazioa eta gainerako baliapide extratestualak. Kontestuan aztertuz, gainera, esaldi hauek ez dute balio informatzailerik; elementu adierazkor hutsak direla esatera ausartu liteke.

Gramatikazko ikuspegi honi amaiera emateko, iruditzen zaigu honelako kasu bat (hau da, baina, ordea, hala ere) adbertsatibo izatetik (zeinetan informaziozko balioa bait da baliorik nagusiena) enfasi adierazpeneko elementu (zeinetan informaziozko balioa ia galdu eta komunikaziozkoa hartzen bait du gehienik) izatera aldatze hau, fenomeno hori gramatiketan eta hiztegietan hain modu urri eta eskasean, ia txiripazkoan, aipaturik agertzea, nahiko arazo larria dela, eta geure hizkuntzaren deskripzio saioak zenbait alorretan, estilistikoan batez ere, zenbateraino dauden buruturik neurria hartzeko balio beharko lukeela.

Testu konparaketa

Hala ere ordea, era honetako azterketek, hizkuntzaren erabilera finkatu eta hedatzeko, malgutzeko, egiten direnek, itzultzailearentzat eta idazlearentzat —eta beharbada gramatikalariarentzat— garrantzi handia badute ere, bada proposatzen ditugun testuetan beste aztergai bat itzultzailearentzat bereziki berebiziko garrantzia duena.

Testu konparaketa saiorik laburrenak ere berehala erakusten du, esan dugun bezala, elkarren paraleloan jarrita dauden testu hauetan, aurreko paragrafoetan aztertu dugun "eta ... alere" segmentua **Liberalen dotriña pecatu da** liburutik ateratako paragrafoetan azaltzen dela bakarrik, eta ez dela paralelorik, parekorik azaltzen ez sorburuzko testuan, ez euskarazko beste itzulpenean, **Liberalkeria pecatuba da** itzulpenean, ez beste hizkuntza erromanikoetara egindakoetan. Atera ditugun adibideetan —ez ahaztu liburu erdia baino gehiagorainokoan dauden guztiak direla— behin bakarrik ere ez da euskarazko adierazpen horren paralelorik, parekorik aurkitzen.

Adierazten erraza baina erabakitzen zaila den arazo bat sortzen du horrek: Zilegi da? Zilegi da horrelako jokabidea itzulpenean? Besterik

gabe ez dugu asmatuko. Banaka ditzagun arazoaren osagarriak, ez bait da arazo bat bakarra, bi baizik: Ba al zegoen zer itzulirik jatorrizko testuan, aipatzen ari garen segmentuaren bidez itzul zitekeenik? Eta bigarrena: Itzulpen hori egokia al da (emanik zer itzulirik badela)? Beharbada, hirugarren galdera bat ere egin liteke: Kasu horretan, egin litekeen itzulpenik onena horixe al da?

Itzulpen teorian lehenengo puntua, kakoa, itzulpen unitatea definitu eta banakatzea, apartatzea, bereztea, izan da beti. Gure kasu honetan era honetara formulatu beharko genuke galdera: Zer itzultzen du, zeren pareko da **eta ... hala ere**? Eta ezeren itzulpen baldin bada, itzulpen egokia da?, soluziorik onena da?, ez dago beste soluzioren bat hori baino hobea?

Testuak, ekarri ditugun bezala, probaleku bikaina dira,berez bezala emango dizkigute galdera horiei dagozkien erantzunak. Zeren alde batetik jatorrizko testua konpara bait liteke, puntu jakin zehatz honi dagokionean, gaztelania bezala hizkuntza erromaniko diren besteetara egin diren itzulpenekin, eta euskarari dagokionean gainera bi konparaketa termino ditugu, eta azter ditzakegu batak eta besteak eragiten duten estilistikazko efektoa.

Gure ikerketaren gidari izan litezkeen bi galderetako lehenari erantzun beharko diogu beste ezeren aurretik.

Esana dugu lehendik ere **eta ... hala ere** eta lehen aipatu ditugun kidekoak, hemen begiratzen ari garen zentzuan, enfasi adierazle bezala hartu behar direla. Jatorrizko testuan dagokeen enfasi adierazpen baten ordezko izan beharko du, beraz, itzulpena puntu honetan ontzat emango baldin bada. Ikusia dugu, aukeratutako esaldiei begiraturik, enfasi adierazle lexikalizaturik ez dagoela, gu bila ari garenaren parean jartzekorik.

Jakin beharra izango dugu, beraz, ea enfasi adierazpen lexikalizatu gaberik izan daitekeen, jatorrizko testuan lexikalizaturik topatzen ez denez, lexikalizatu gabea beharko bait du, itzulkizunik baldin bada.

Izan daitekeela dudarik ez dago. Hainbat eratakoak, hala ere. Gramatikaz gaindikoak, ordea, ia beti. Gehienez ere sintaxiari dagozkionak izango dira enfasi modu horiek. Baina sintaxiari dagozkionean ere, mezuaren antolamenduaren ondorioz izango da (informazio andanaren simetriak, etenak, errepikazioak, etab.). Enfasia da hain zuzen, hizketan ere baliapide extralinguistiko, edo extratestual, edo idatzira bihurtuezin gehienez adierazten den mezu parteetako bat. Ez guztiak, ordea, zeren baliapide horietako batzuk isuri bait litezke idatzian.

Baieztapen bat azpimarratu nahi delarik, galdera enfatiko batez abiatzen denean bezala, galdera ez den esaldi interrogatibo batez, alegia. "Jatortzuz (gogoracino loiak, gurari charrac, araguizco tentamenduac) or-emen zabalduric, nonnai deslai dabiltcelaco zure zentzunac? Batu eguizuz", galde eta erantzun planta egiten du Añibarrok **Lora sorta espirituala** A. Palaciosen testutik egindako itzulpenean, inori ezer galdetzen ez diolarik, bistan denez, aurrez bait zekien erantzuna. Horregatik "planta"; baina planta egitea ere mezu da.

Adibideak parrastaka ugaldu litezke. Badira, asko hala ere, lexikalizatu gabe geratzen diren adierazkizunak, eta hala eta guztiz ere adierazpen direnak, baliapide extratestuealez aparte ere, testuan adierazten den mezuaren ordenamenduaren bidez eta testuaren eta kontestuaren arteko erlazioa eta orekaren bidez aditzera ematen direlako eta ulertu egiten direlako, ondo ulertu hala ere, eta entzule edo irakurle gehienek ulertu gainera.

Horrela bada, adierazkizun diren neurrian, mezu alegia, era batera edo bestera itzulgai dira, itzulpen unitate, hain zuzen. Zentzu horretan esan liteke testuaren eta kontestuaren arteko egokiera eta oreka aztertu arte ez direla erreparatzen itzulkizun diren guztiak, ez dela ulertu mezu osoa.

Aztertzen ari garen kasu honetan, jatorrizko testuak ageri duen doinu jaso eta polemista ez dator eztabaidatzen eta aipatzen diren kontzeptuek emanik soilik, maiz eta bistako gauza izan liburu guztian zehar egiten diren baieztapen eta ukazioak polemikoak direna. Baina mezuaren beraren, eta mezuaren osagaien hautaketan ezezik, berorien ordenamendu eta antolamenduan ere somatzen da doinu jaso bortitz hori. Erretorika. "Figures de grammaire" eta "figures de pensée" dio P. Lafittek **Grammairean**. Horri berehalaxe antzematen zaio. Badago, beraz, itzulkizun bat, adierazkizun bat, jatorrizko testuan, euskararatzerakoan era batera edo bestera testu berrian bihurtu behar dena, galdu behar ez dena.

Itzulmodurik egokiena zein izan litekeen begiratzen ez da erraza. Zilegi izan litezkeen modu guztiak ezin dira zerrenda batean sartu. Kasu honetan ordea euskarara egindako bi itzulpen dauzkagu. Konpara litezke. Batean gainera, **Liberalen dotriña pecatu da** liburuan, jatorrizko testuak lexikalizatu gabe zuen itzulkizun enfasi adierazle hori lexikalizatu egiten da; bigarrenean, **Liberalkeria pecatubaa da** itzulpenean, ez. Hona bi testuak, ahalik eta laburrenean konparagarri, parez pare jarririk:

a.— ... eguia dira, eta eguia garratza alere, bere etsaiyac...
... egiya dira, eta samiñki egiya, bere etsaiak...

b.— ... eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia alere, oyen jatzar eta erasóac.
... egiyac dira ta odola dariyon egiya, bere jazarrialdiac.

c.— Eta ona emen liberalen dotriña eztirudielaric, eguiaz eta benaz ala dana, eta cimarroi galgarriena alere, alacoaren antzic eztuelacoa.
Eta ara-emen zerbait izatea, Liberalderia dala ezpadirudi-ere, bada ordea; eta piñeratuena eta categarriena, alacoaren itsurarik ez daucalako-ber-beragatic

d.— Nic, dotriñ eguiazcoari narraicanác becela, au pecatu dala topatzen det..., pecatu eriozko edo mortala alere...
Nic onetan, zillegikinlari catolicoa naizanez, pecatugaya icusten det; eta ... pecatu larriaren gaya...

e.— ... cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere ...
... catolicoa naizala

f.— Patu gaiztoco oyec liberalen gaiztaqueri gucietan culpagarri, eta lenengo culpagarri alere, dira...
Doacabe oec dira partaleric lembizicoenac...

g.— Badaude, bada, paper liberalac ececic, liburu liberal edo liberalen dotriñan cutsutzen diranac ere, eta ugari alere...
Badira beraz, ez bacarric jiraizcribu liberalac, baita ere liburu liberalac edo Liberalkeriaz cutsutubac, eta ugari daude...

h.— Ortic ondoretzen da, bada, urcoa maite izan litequeala, eta berari ona opa lizayoqueala (eta asko alere) berari gogoco etzayona eguiñaz...
Ortic datorrena da, bada, maita leikeala, eta ongi-nai-izan lagunurcoari (eta asco) desgustaziric eta contraegiñic berari, eta...

